

Lehen Hezkuntza

1. Zikloa

1. eta 2. mailak

12 EKOIZPEN ETA
KONTSUMO
ARDURATSUAK



JUSTIZIA

Lantzeko garaia

SED materialak 24-25



Elkartasuna | Hezkuntza | garapena

Materialen indizea

Activitat

Abestia, Ipuina, Bideoa

03

Annexos

Abestia “Salbatu mundua”

Ipuina eta plaka ilustratuak

Bideoa “Hondakinak eta birziklapena”

Bideoa “Detektibe ekologikoa”

Passaport

05

Otoitza

Sorkuntzaren Jainkoa

zure maitasuna

mundu hobia

Gure eguna

Kontsumo arduratsua

34



Jarduera

SAIOAREN DESKRIBAPENA

Titulazioa:

Mundu hobe baterako pasaporte

Gaia:

Ikasgela

Etapak:

Lehen Hezkuntzako lehen zikloa (LHko 1. eta 2. mailak)



Ikastaroa:

LHko 1. eta 2. mailak



Helburuak:

Ipuina, Irudi-orriak, Pasaportea, Ordenagailua, Kartoi meheak, margoak, kola, Proiketagailua....

Denbora:

Bi saio, 40 minutu ingurukoa bakoitza.

1

LEHENENGOA JARDUERA

Motibaziorako abestia entzungo dugu, eta dantzan egingo dugu: **"Salbatu mundua"**.



2

LEHENENGOA JARDUERA

1. Ipuina irakurriko dugu elkarrekin, eta ipuinarekin batera datozen irudiak ikusiko ditugu.
2. Taldeka, kontsumo arduratsuen adierazgarri den ipuineko irudia aukeratu dute, eta zergatik aukeratu duten azalduko diete ikaskideei.

3. Horma-irudi bat egingo dute aukeratuak irudiarekin lotuta kontsumo arduratsua bultzatzeko eta ikastetxean ezartzeko.
4. Pasaportea aurkeztuko zaie, kontsumo arduratsuekin lotuta beren ingurunean egiten dituzten jarduerak idatziz jaso ditzaten.

3

HIRUGARRENA ARDUERA

1. Ikusi honako bideo hau: **"Hondakinak eta birziklatzea"**. Zenbait galdera egingo zaizkie, ulertu duten aztertzeko, eta, adinaren arabera, eman beharreko argibideak emango dira.
2. Bilatu ikasgelan berriak diren edo egiaz behar ez dituzten bi gauza.
 Galderak:
Gustatzen al zaizu? Behar al duzu? Zertarako? Erabil al dezakezu beste ezer gauza hori egiteko? Zer egingo duzu jada behar ez duzunean?
3. Azaldu batzarrean zer aukeratu duzun eta zergatik ez den beharrezkoa.



Galderak:

Gauza asko erosten al dituzue? Behar dituzue? Zenbat baloi daukazue etxean? Ez zenukete nahikoa izango batekin? Zenbat gauza botatzen dituzue zaborretara? Janari guztia jaten duzue? Sobera geratutakoa bota egiten duzue, edo hurrengo egun baterako gordetzen duzue? Birziklatzen al duzue? Hondatzen zaizuen konpontzen saiatzen zarete, edo bota egiten duzue? Zaintzen dituzue daukazuen gauzak? Ba al dakizue nondik datozen dituzuen gauzak? Ba al dakizue nora doan zaborra?





4 LAURDENA JARDUERA

1. Binaka, egin jolas kontsumo arduratsurekin lotuta dauden edo ez dauden egoerak antzetzuz; irakasleak esango dizkie belarrira egoera horiek. Gainerako ikaskideak “detektibe ekologiko” bihurtuko dira, eta jarrera bat zuzena den edo ez esango dute, hatz lodia gorantz edo beherantz zuzenduz.

2. Jolastu elkarrekin, ingurumen-delitua nork egin duen bilatuz, honako bideo honetan: **“Detektibe ekologikoa”**

3. Pasaportean idazteko moduko ekintzak gogoratuko ditugu, nola margotu dituzten ikusiko dugu, eta jardueraren motibazioa landuko dugu berriro.

5 BOSGARRENA JARDUERA

Familiei jardueraren berri eman ondoren, jolas bat edo ipuin bat eskolara eramateko esango zaie, elkarrekin gauzak trukatzeko; bigarren eskuko gauzak erabiliz, gehiago ez

kontsumitzea lortuko da, eta hondakin gehiago sortzea saihestuko da, eta horixe bultzatzea da helburua.

Aukerak

Ipuinaren ordeaz, irudiak aurkez diezazkiekegu, eta asmatu dezatela eurek zer ari den gertatzen.



ZENBAIT BIDEO EDO WEBGUNE INTERESGARRI

- 2. GJH (Smile and learn)
- Kontsumo arduratsua (Smile and learn)
- Ipuina “Zer gertatzen zaio planetari?”

- Kontsumo arduratsuari buruzko ikasmateriala
- GJHei buruzko informazioa
- Beste material batzuk



Eranskinak

Abestia "Salbatu mundua"



Eguzkiaren koloreak,
munduarentzat printza ederrak.

Zaindu (e)zazu (e)ta tratatu gogoz
besarka (e)zazu lagundu asmoz.



Salba mundua, etorri.
Albo-alboan nago ni.
Bat egin (e)ta hartu parte,
pausoz pauso, egunsentira arte.

Zure laguntzaz alda daiteke,
hazi berria erein jo (e)ta ke.

Tantaz tanta, itsasoraino,
aurrera goaz azkeneraino.

Salba mundua, etorri.
Albo-alboan nago ni.
Bat egin (e)ta hartu parte,
pausoz pauso, egunsentira arte.



Ipuina



Nakor eta Joan anaiak dira, eta hiri txiki batean bizi dira beren gurasoekin eta Tofy txakurrarekin.

Goizero, goiz jaikitzen dira eskolara joateko.

Nakor, Joan, altxatu ohetik! esaten die amak atetik.

Di-da batean altxatzen dira Joan eta Nakor. Badakite eskolara joan aurretik Tofy atera behar dutela.

Lehen-lehenik, jantzi eta ohea egiten dute; gero, ondo gosalduta ondoren, hortzak garbitzen dituzte.

Badakizue, itxi iturria hortzak garbitu bitartean esaten die amak sukaldetik.

Prest daude paseatzeko. Zain dute atean Tofy, beren txakurra, pilota bat ahoan duela. Parkera joatea eta bi anaiekin jolasean ibiltzea gustatzen zaio Tofyri. Hiruretako inork galdu nahi ez duen une dibertigarria da zinez.

Tofy parkean gora eta behera ibiltzen da Nakorrek ahalik eta indar handienarekin botatzen dion pilotaren atzetik.


Tofyk kaka egiten duenean, Joanek poltsatxoa hartu eta jaso egiten du, zakarrontzira botatzeko. Gainera, botila bete ur eramaten dute. Tofyk pixa egiten duenean gainera botatzeko. Usain txarra du txakurren pixak, eta, gainera, orban zatarrak uzten ditu lurrian. Tofyrekin kalean doazenean arrastorik ez uzten erakutsi diete Joani eta Nakorri.

Etixerako ordua iritsi zaie, eta, Tofyk jolasean jarraitu nahi badu ere, badakite itzuli egin behar dutela garaiz iristeko.

Zain dute ama atean, guztia prest duela.

Bizkar-zorroetan, ogitarteko goxo bat eta sagar bana dituzte, amak prestatutako oihalezko zakutxo batean. Amonak egin zizkien poltsak biei, eta bakoitzari bere izena brodatu zion azalean.

Duela bi urtetik hona, bizikletaz joaten dira eskolara. Aitak laguntzen die, haren bulegoa eskolatik gertu baitago, eta elkarrekin egiten dute bidea.





Ikastetxe aurrean, barra batzuk daude bizikletak uzteko. Goiza hasteko modu atsegina da.

Iristen direnean, metalezko ur botilak urez betetzen dituzte. Bidea egin ondoren, egarria sartzen zaie, eta, goizero bezala, botilak urez betetzen dituzte egunean zehar edateko.

Gaur, egun berezia da Nakorrentzat. Batxilergoko ikasleek jarduera bat prestatu dute haurrentzat eskolako baratzean.

Tomateak, urazak, tipulak eta abar landatzen irakatsi behar diete. Ikasten duten guztia aitonaren baratzean egin ahal izango dute gero. Euren aitona hiritik gertu dagoen herri batean bizi da. Aitonaren baratzeakoak dira Joan eta Nakorren etxean jaten dituzten barazki guztiak. Oso zapore ona dute, eta dibertigarria da zeuk ereiten duzuna jatea.

Ereiten eta landatzen ez ezik, etxeko ongarria egiten ere ikasi dute. Aitonak ahalegin handia egiten du bilobek ikas dezaten, eta gogoz irakasten die baratza ekologikoa nola prestatu. Kafe hondarrak, banana eta arrautza azalak eta te-poltsen hondakinak erabilita ongarri aberatsa egin daitekeela irakatsi die.

Joanek ere egun berezi-berezia du aurrez aurre. Gaur, eskulanak egingo dituzte. Material birziklatuak eraman dituzte aurreko egunetan, eta jostailuak asmatu behar dituzte, gero Haur Hezkuntzako geletara eramateko. Asteburu osoan, plastikozko botilekin, paper biribilkiekin, tapoiekin eta abarrekin zer egin dezakeen pentsatzen egon da. Ederra izango da egindako gauza guztiekin Hhko haurrekin jolasean ibiltzea.

Gainera, ikaskide bati bururatu zaio loreak landatzeko loreontzi txiki batzuk egin ditzaketela plastikozko botilekin, udaberria iristen denerako ikasgela apain-apain jartzeko.

Ondo doakie eguna. Irrikaz daude etxera iritsi eta gurasoei eskolan ikasi duten guztia kontatzeko.

A zer sorpresa etxera iritsi direnean! Teilatuan eguzki-plakak jartzen ari dira gurasoak.





Esan diete energia garbia sortzeko modua ematen dutela plaka horiek. Ingurumena zainduko dute horrela, eta goizero esnarazten dituen eguzki distiratsuaren energia kontsumituko dute.

Joani lagun batek bere kirol-oinetako berriak erakutsi dizkio. Bikainak dira benetan, eta gurasoei berdin-berdinak erosteko esango die.

Gurasoek esan diote ez duela halakorik behar. Badauzka bereak, oso politak, nahiko berriak oraindik; arduraz jokatu behar du, eta behar ez duenik ez kontsumitu.

Ondo daki hori Joanek, eta kirol-oinetakoak apurtu arte edo txiki geratu arte zain egon beharko du berriak erosteko.

Behar duena soilik eduki behar irakatsi diote etxean. Horregatik, baloi bakarra dauka futbolerako, eta beste bat saskibaloirako. Egia esateko, ez du gehiagorik behar, aldi bakoitzean bakarra erabil baitezake.

Anaia txikiak, Nakorrek, Joanen jantzi asko jasotzen ditu oinordetzan, badakielako arropa zaintzen eta, beraz, ondo uzten dituelako berriro erabiltzeko. Gurasoek irakatsi ur asko gastatzen dela arropak egiten, eta ez dela beharrezkoak kirol-jertse gorri bat erostea aurrez beste bat izanda. Batzuetan, arropa berria egiten diote oparitan, baina urtebetetze-egunean baino ez.

Gaurko eguna primeran doakie Nakorri eta Joani, eta berriro irten dira etxetik Tofyrekin, parkera joateko.

Gurasoekin batera doaz oraingoan. Eguraldi ederra dute gaur, eta oso gustura doaz, familian elkarrekin jolasean ondo pasatzera.

Parkera iritsi direnean, ezusteko ederra izan dute.

Pankarta handi-handi bat ikusi dute, honako lelo honekin: "Nahi baduzu, egin jolas, baina bazterrik ez nahas. Zaindu parkea, jokatu ganoraz".

Zer gertatzen den galdetu diete gurasoei, eta esan diete parkea garbi eta txukun zaintzeko kanpaina bat dela. Inguruko familia guztiak bildu, eta, elkarrekin, arduragabe batzuek inguruetan utzitako zaborrak biltzen hasi dira.



Nakor, Joan eta gurasoek bat egin dute taldearekin, eta zaborrak biltzen lagundu diete. Tofyk ere lagundu die. Usnaka dabil nonahi, eta bildu beharreko zerbait topatzen duenean, abisatu egiten die. Txakur azkarra, azkarrik bada!

Oso txukun geratu da parkea, eta beti horrela edukiko dutela hitz eman dute guztiek.

Nekatuta amaitu dute eguna. Etxera itzuli da familia osoa, eta, bainu lasaigarri bat hartu ondoren, elkarrekin afaldu dute.

Sukaldea jaso, eta zaborrak dagozkien zaborrontzietara bota dituzte. Ingurumenarekin arduraz jokatzeko duen familia bat da, eta, elkarrekin, mundu hobe bat nola eraiki ikasten ari dira.

Ohera doaz haurrak, eta segituan hartu ditu loak.

Egunsentia dator, eta lo seko daude Nakor eta Joan.

Amaren ahotsa entzuten da, goizero legez:

- Joan, Nakor, altxatu ohetik!

Izututa esnatu da Nakor. Ametsetan ari zela konturatu da.

Egunero gauzatxo batzuk eginez ingurumena zaintzea zeinen erraza den ohartu da.

Eskolan nahiz etxean ingurua zaintzeko egin ditzaketen gauza guztien berri eman nahian, di-da batean jaki da.

Ametza egia bihurtu dezake. Lanari gogoz ekiteko garaia da.

Zer uste duzu, lortuko duela?

Zer egin dezakezu zuk?

Ausartuko zara?







inachus, Jainne




Silva 2024




















Nahi baduzen, egin jolas, baina basterrik
ez nahas. Zaindu nartkea, jekatur
ganeratz.





inachus, Jainme














5/10/2024





Silvia 2024











Nahi baduan, egin jolas, baina barterik
ez nahas. Zairdu partea, jokatuz gerozt.

☺

Silvia 2024

Or. 31






Bideoa "Hondakinak eta birziklapena"



Bideoa "Detektibe ekologikoa"



Otoitzak



Kreazioaren jainkoa

Jauna, guztion etxea,
opari egin diguzun Lurra,
zaindu dezazun eskatzen dizugu.
Irakats iezaguzu
Lurra maitatzen,
txoko bakoitza zaintzen;
baso nahiz ibaiak, animalia
nahiz landareak.
Emaguzu zure eskua
gauza gutxiagorekin zoriontsuago
bizitzen ikas dezagun.
Amen.

Jolasgaraian, naturako elementu bat hartuko
dugu, eta ikasgelaren erdian utziko dugu,
eskerrak emanez: "Eskerrik asko loreengatik,
edo lurragatik, edo zuhaitzengatik..."



Abestia: KREAZIOAREN JAINKOA





Zure maitasuna

Zuk, gauza guztietan zauden
horrek, edonora iristen zaren hor-
rek, emaguzu zure maitasuna,
gauza oro eta pertsona guztiak
zaintzeko.

Bete gaitzazu bakez, senide gisa
bizi gaitzen,
inori eta ezeri minik eta kalterik
eragin gabe.

Zatoz gure ondora,
arduraz kontsumitzen
ikas dezagun, eta
munduaren zaindari izan gaitzen.
Amen.



Bihotz bat egingo dugu plastilina gorria
erabilita, eta erdi-erdian utziko dugu, guztiekin
bihotz handi-handi bat osatuz. Gure eta
lurraren arteko maitasunezko harremana
sinbolizatuko dugu horrela.



Mindfulness: LURRA NAIZ





Mundu hobeia

Lagundu, Jauna,
egiten dugunaz jabetzen, ezer ez
puskatzeko, ezer ez zikintzeko,
zaintzeko eta maitatzeko baizik.

Emaguzu apaltasuna,
gaizki egiten dugunaz jabetzeko, eta
gauzak ondo egiteko gogoia,
mundua toki hobeia izan dadin.

Jauna, entzun gure otoitza,
eta irakatsi gogoz,
gizon-emakumeak, animaliak, basoak
eta itsasoa zaindu ditzagun.
Amen.



Ipuina: **HIRU BEGIKO IGELA**

Mundua leku hobeia izan dadin bururatzen
zaizkigun ideiez hitz egingo dugu, eta gure
Lurra nola zaindu ere pentsatuko dugu.
Ikasgelan antzeztuko dugu gero, antzeztan
txiki baten bidez.





Gure egunez egunekoa



Jauna, gure egunez egunekoan gauzak ondo egiten jakin dezagun eskatzen dizugu, inguruan dugun guztia zaintzeko.

Lagundu iezaguzu gure ekintzen jabe izaten eta Lurra babestuko duten erabaki arduratsuak hartzen.

Gogorarazi, mesedez, behar duguna erosi behar dugula soilik, birziklatu, berrerabili eta hondatutakoa

konpondu behar dugula, eta Lurra zaintzeko bururatzen zaigun beste edozer ere bai. Amen.



Aurreko egunean jandako jogurt ontzia gordeko dugu, eta bigarren erabilera emateko eskulan bat pentsatuko dugu guztion artean. Jostailuak erosi beharrik ez dagoela adierazteko, ondoren adierazten den eskulana ere egin daiteke; batzuetan, jostailuak trukatu ditzakegu elkarrekin, edota, bideoan ikusten den bezala, jostailuak egin ditzakegu:



DIOS DE LA CREACION - PEQUEÑOS HEROES
Abestia Infantil






Kontsumo arduratsua

Jauna, jokatu dezagula egunero maitasunez eta arduraz gauzak eta pertsonak zaintzeko, batez ere behar handienak dituztenak.

Konturatu gaitezela ingurumenari egiten diogun kalteak gure anai-arrebei ere eragiten diela.

Jesus, apaltasunaren eredu, besteen zerbitzura egon zirena, irakatsiezaguzu arduraz kontsumitzen eta kutsadurarik gabeko mundu bakezale baten alde elkarrekin lan egiten. Amen.



Ikastetxean, gure aztarna ekologikoa murriztea dugu helburu. Bai gu geu jabetzeko eta bai besteak kontzientziatzeko, gure egunerokoan kontuan zer hartu behar dugun pentsatuko dugu, eta horma-irudiak egingo ditugu ikastetxean esekitzeko.



ZAINDU DEZAGUN LURRA
haurrentzako ipuina

